

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**MIRAKRUZ 10 B**



**Egilea eta data: Francisco Urcola; 1914.**

**Deskribapena**

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko bost goi oin (5.a atzeraemana) eta beheko oinarekiko 1933ko jasodura atzeraeman bat dituena. Harlanduzko fatxada, ezkerreko baoaren aurrean hormigoizko begiratokia duena. Bao hirukoitzak ditu jatorriz behe oinean. Proiektu komuna Iparragirre 3 eta 5, Mirakruz 10, 10A eta 10C eta Iztueta 3, 5, 7 eta 9 zenbakiekin.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.